

## "AUTODETERMINAZIOA"

(Erregearen Erantzuna)

"Autodeterminazioa" edo "ber-erakuntza", gizakume batek, edo Erri batek, bere burua berak nai dauan bezala eratu aal izateko eskubidea dogu.

Ber-erakuntza orrek ez dau esan nai Erri batek onelakoa, orrelakoa, edo alakoa izan bear dauanik. Soilki, gizakume batek edo Erri batek, onelakoa, orrelakoa edo alakoa izateko eskubidea badauala esan nai dau.

Eztare ez dau esan nai Erriek, ots, Aberriek, onelakoak, orrelakoak edo alakoak izatera bearturik dagozanik. Auxe besterik ez dau esan nai: onelakoak, orrelakoak edo alakoak izateko eskubide osoa dabela.

Orregaitik, Euzkadi'n abertzaleek badabe Euzkadi'rentzat askatasun osoa eskatzeko eskubidea, eta baita españizaleek Euzkadi Espāñi'rekin alkaturik gorde nai izatekoa ere. Bai aiek ordea eta bai auek, beren asmoe-tara iristeko indarkeririk erabilli gabe.

Ori ez dabe ulertu españizaleek. Ez da arritzekoa. Espāñi'k burua galtzen bait dau Euzkadi aipatzen yakon bakoitzean.

Euzkadi'n ber-erakuntza oiukatu danean Euzkadi'ren aurka jeiki da Espāñi osoa: Errege Borboia, Felipe Gonzalez'tarra, "Izkierda Unida", Blas Piñar, Gudaroztea, Fraga, Caro Baroja... eta nor ez?

\* \* \*

Bai. Eliza! Oraingo ontan zorionez ez da Eliza, oituzkoa izan daun lez, Espāñi'ren alde eta Euzkadi'ren aurka, auzian sartu.

Errege Borboiak aztu dau —edo bearbada ez dau sekulan jakin—, Borboiak lendabizi errege izan ziran tokia, Euskalerrria izan zala, eta beren erreñu artako jendeak, danak —amarreko batzuk kenduz gero dan-danak—, euskera beste izkuntzarik ezagutzen ez eben jendeak zirala. Benaparroa'n izan bait ziran beste iñon baiño len Borboiak errege.

Espāñi'ren batasuna aizatu dau Errege Borboiak Euzkadi'ren askatasunaren aurka. Guri, Franko'ren "Espāña una" ura dakarkigu gora arrazoiketa orrek.

\* \* \*

Gugaitik, bat izan daiteke Espāñi, gura ba'dau; guk, Euzkadi Espāñi ez dala, esaten bait dogu.

Gaiñera, nongo legeak agintzen dau Espāñi, ainbeste endaz eta kulturaz osotutako Espāñi ori, bat izan bear dauanik?

Ez beintzat "lex naturalis" edo izadi-legeak; izadiari dagokionez, Espāñi sortzen asi baiño MILLAKA URTEZ leenago... iEuskalerrria bai bait zan!

Ezta, ez noski, Jainkoaren legeak ere. Onaku au, bere elizbarrutian espetxeraturik egozen apaiz euskaldun onuragarri batzuk babesteko, Segura Kardenalak Sebilla'ko apaiz Frankozale batzuei esana da:

"Idazti Doneko zein aapaldietan, Kontzilio Ekumenikuen zein erabakietan, Kanon-Legeko zein arauetan, Aitasantuen Entziklika-Gutunetako zein ataletan ikasi dozue Espāñi'k 50 probintzi izan bear dauzala".

\* \* \*

Gaiñera —egin dagigun bildurrik gabe galdea—, lortu dau Espāñi'k bere batasuna? Batasun guztiak lortu oi diran bezala: indarkeri gaiztoz.

Gizadia, berez, ez doa batasunera; alkartasunera doa. Gizarteko mailla eta arlo guztietan, batasuna lortzeko, naitanaiezkua dau indarkeri gaiztoa batasungilleak.

Euzkadi'ri dagokionez, ondotxo dakigu euskotarrok, joan dan mendean, guri Lagi Zarra ebatsiz nola lortu eban Espāñi'k bere batasun ori. Aurpegi zakarra ikusten yako Espāñi'ri, batez ere joan dan mendeko Espāñi'ri, Euzkadi'tik begiratzen ba'yako.

\* \* \*

Alatagutziz —esan dagigun lotsarik gabe eta bildurrik gabe—, Espāñi'k badau Euzkadi bere altzoan gorde nai izateko eskubidea! Baiñan ortarako, beste era batzuk erabilli bear dauz; ez daikez orain arte erabilli dauzan erak birrerabilli. Euzkadi'k ere badau ba Espāñi'tik bereizita, Laterri iare bat osotzeko eskubidea!

Gaurkoz, ordea, bedi naikoa idatzi dodan au. Bai bait dot gai onekin jarraitzeko asmoa.

LATIEGI'tar BIXENTE